

## **1996ko AZAROAREN 26ko BILKURA NAGUSIA**

Lizartzan, mila bederatziehun eta laurogeitamaseiko azaroaren hogeitaseiean, gaueko bederatzia direnean, Alkatea: Jose Antonio Mintegi Arrate; Udalkideak: Ima Zubeldia Luloaga, Juan Manuel Iburguren Etxeberria, Marian Olano Zabala, Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia eta beste hainbat herritar; Ramon Bengoetxea Altuna, Manuel Barriola Tolosa eta Jose Arzadun Egiluz zinegotziak, ez dira agertu, eta ez dute inolako arrazoirik eman; Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

### **1.- AURREKO AKTAREN ONARPENA:**

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

### **2.- LIBURUTEGIKO LAGUNTZAILEAREN OINARRIAK**

Kultura Batzordeko arduraduna den, Ima Zubeldia Luloaga Zinegotziak, hitza harturik dio:

Eusko Jaurlaritzako Erakunde Harremanetako eta Toki Administrazioiko Zuzendaritzatik, Liburutegiko Arduradun baten kontratazioarako eginiko deialdiaren oinarri buruz, aurkeztutako adierazpenak direla eta hauek onartuaz, Liburutegiko Laguntzailearen kontratazioarako oinarri berriak onartzeko proposamena luzatu du:

**LEHENENGOA.-** 1.996ko uztailaren 10eko Ohizko Bilkuran Udal Batzarrak onartutako Liburutegiko Arduradun lanpostua arautuko zuen Oinarri plegua eta zegokion deialdia indarrrik gabe uztea.

**BIGARRENGOA.-** Udalaren plantilan bete gabe dagoen Liburutegiko laguntzaile plaza bat hornitzeko hautaketarako deialdia egin eta Oinarri aruak onartzea.

HIRUGARRENGOA.- 1.996ko Uztailaren 10eko akordioak argitaratuz, abuztuaren 30eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Liburutegiko Arduradun lanpostua betetzeko deialdiaren ondoren, Udal honetan jaso diren inskripzioei, deialdi berri honetan parte ahal izateko baliotasuna ematea.

### **LIBURUTEGIKO LAGUNTZAILE BATEN KONTRATAZIORAKO OINARRIAK**

#### 1.- Deialdiaren Xedea

Deialdi honen xedea oposizio librearen bidez, liburutegiko laguntzaile baten kontratazioa da. Lan kontrataziopean, D. sailkapen taldean sarturikoa, 8ko balorazio mailarekin. Hirugarren hizkuntza eskakizuna bete beharko duelarik.

Betebeharreko funtzioak:

- a) Herriko Liburutegiko eginkizunak izango ditu.
- b) Irakurketaren suspertze lanak, batez ere eskolkideen artean.
- d) Kultura eta Gizarte taldeen koordinatzailea.
- d) Kultura Batzordeko Lehendakariak izendaturiko lanpostuari lotuak egon daitezken beste eginkizunak.

#### 2.- Plazaren Ezaugarriak

Liburutegiko laguntzaile plaza, lan legepeko langilea izango da. Martxoaren 24ko 1/95 R.D.L.ren arabera, hiruhilabeteko froga denbora ezartzen da.

### 3.- Lan-lharduera

Lanaldia, urteko Udalak ezartzen duen ohizkoaren 40%eko izango da eta arratsaldez egingo da, 17 eta 20 orduen artean, lanpostuaren beharren arabera.

### 4.- Izangaien Baldintzak

Oposizio honetara aurkeztu ahal izateko, izangaiek ondorengo baldintzak bete beharko dituzte:

- a) Nazionalitate espainiarra izatea edo Europako Elkarteko edozein Estatukoa, edo eta, abenduaren 23ko 17/1993 Legearen xedapen gehigarri bakarrean adierazitako Estatu-takoa (Abenduaren 24ko Estatuko Aldizkari Ofiziala).
- b) Eskariak onartzeko epea amaitzean, 18 urte beterik izatea eta 55era iritsi gabe.
- c) Administrazio Publikoaren Zentro, Entitate edo Organismoan jarraitutako disziplina espedientearen indarrez zerbitzutik baztertu ez izana.
- d) Funtzionak normaltasunez betetzea eragoz dezan gaisotasun edo akats fisikorik ez edukitzea.
- e) Ezintasun zein elkartezintasun legezko arazorik ez izatea.
- f) Eskola Graduatua, FP1 edo antzerako titulazioa izatea.

### 5.- Instantzien Aurkezpena

Onartua izateko instantziak Korporazioko Lehenda-kariari zuzenduko zaizkio. Instantzia horietan izangaiek deialdian eskatutako baldintza guztiak eta

bakoitza biltzen dituztela adierazi beharko dute, instantziak aurkezteko epearen amaiera datari begira kasu orotan.

Instantziak Udal honen Erregistro Nagusian aurkeztuko dira, deialdiaren Oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxe honetako Iragarki Taulan azkeneko aldiz argitaratzen diren egunaren biharamunetik hasi eta 20 laneguneko epean.

Prozedura Administratiboari buruzko Legearen 66. artikuluan ezarritakoari jarraikiz ere aurkeztu ahal izango dira instantziak.

Instantziaren batek baldintzaren bat betetzen ez badu, doakionari dei egingo zaio 10 eguneko epean akatsa zuzendu edo alegatutako agiriak aurkez ditzan, horrela egin ezean instantzia beste tramiterik gabe artxibatuko dela eta izangaien zerrendatik kanpo geratuko dela jakin eraziz.

## 6.- Izangaien Onarpena

Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, Udalak onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onetsiko du. Zerrenda hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan argitara emango da 15 eguneko epean zehar erreklamazioak aurkeztu ahal izateko, Prozedura Administratiboari buruzko Legearen 121. artikulua-rekin bat.

Ebazpen horretan argitaratuko da, hautaketa frogetako lehen ariketa hasiko den eguna, tokia eta ordua.

Erreklamaziorik ez badago, behin-behineko zerrenda automatikoki behin-betiko onetsizat hartuko da. Erreklamaziorik egonez gero, ordea, behin-betiko zerrenda Gipuzkoako Aldizkari Ofizialen argitaratuko da.

## 7.- Epaimahai Kalifikatzailea

Epaimahai kalifikatzailea, honako era honetan osatuta egongo da:

Lehendakaria: Udaletxeko Alkate-Lehendakaria edo bere ordezkoko Korporazio kidea.

Mahaikideak: HAEEko ordezkari bat, horretarako izendatua.

HAEEko ordezkari bat, euskara azterketarako.

Herri Batasuna eta Lizartzako Herriaren Aldeko alderdi politikoetako kide bana..

Gipuzkoako Foru Aldundiako ordezkari bat.

Lizartzako Udaleko pertsonaleko kide edo ordezkari bat, langileak ordezkatzuz.

Idazkaria: Lizartzako Udaleko Idazkaria edo berak izendatu-tako ordezkaria.

Hauetz gain, titularren aldi berean izendatu beharko diren hurrenez-hurreneko ordezkoek ere, osatuko dute epaimahaia.

Epaimahaikideen izendapena, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko iragarki taulan argitara emango da.

Epaimahaiak ezin izango du eratu ez eta ihardun ere, epaimahaikide titular, zein ordezkoen kopuruaren erdia baino gehiago bertarutzen ez bada.

## 8.- Oposizioaren Hasiera eta Garapena

Lehiakideak batera egin ezin izango diren ariketak egiteko, sorteo bidez izendatuko dira.

Lehiakideak ariketarako deialdi bakarrean deituak izango dira.

Lehenbiziko Ariketa: Derrigorrezkoa eta Baztertzailea.

Euskera: Lehiakideak hirugarrenengo Euskara eskakizun maila azaldu beharko dute, gai edo ez gai kalifikatuak izango direlarik. Froga hau ez dute egin beharrik izango dokumentalki badutela frogatzen duten lehiakideak.

Bigarren Ariketa: Derrigorrezkoa eta Baztertzailea.

Izangaiek Lizartzako Udalerriko ezagupideari buruzko galderari erantzun beharko diete idatziz.

Froga 0tik 10 puntutara bitartean baloratuko da, gutxienez 5 puntu lortu beharko direlarik gaindituztat emateko.

Hirugarren Ariketa: Derrigorrezkoa eta Baztertzailea.

Eraskinean zerrendatzen diren 3 multzoei, bakoitzatik galdera bati, erantzun beharko diete idatziz.

Froga 0tik 10 puntutara bitartean baloratuko da, gutxienez 5 puntu lortu beharko direlarik gaindituztat emateko.

Laugarren Ariketa: Derrigorrezkoa eta Baztertzailea.

Liburutegi eta Kultur Suspertzailletza arloko ariketa praktikoa.

Froga 0tik 10 puntutara bitartean baloratuko da, gutxienez 5 puntu lortu beharko direlarik gaindituztat emateko.

Bostgarren Ariketa: Derrigorrezkoa.

Ordenagailuarekin, froga praktikoa.

Froga 0tik 2 puntutara bitartean baloratuko da.

Berdinketak gertatuz gero, Epaimahaiak, beste froga bat egitea ahal izango du, berdinketa lortu dutenen artean.

#### 9.- Epaimahaiaren Proposamena

Izangaien kalifikazioa amaitu eta, lortutako kalifi-kazioen batuketa egin ondoren, Epaimahaiak onartutakoen zerrenda argitara emango du, lortutako puntuazioaren arabera ordenatua, hauek ezin izango dutelarik deitutako plaza kopurua gainditu. Aipatutako zerrenda, kasu honetan pertsona bakar batek osatuko duena, Udal Osoko Bilkurari igorriko zaio, honi dagokion izendapen proposamena egin dezan.

Oposiziogileek egindako proben maila deitutako plaza betetzeko egokia ez dela baderitzo, Epaimahaiak deialdia hutsik deklara dezake.

#### 11.- Gorabeherak

Epaimahaiari ahalmena ematen zaio sortzen diren zalantza guztiak argitu eta oinarri hauetan aurrikusten ez den guztian oposizioa behar bezala garatzeko beharrezko erabakiak hartzeko.

#### 12.- Inpugnazioak

Doakienek deialdi hau eta bere Oinarriak, Udal Batza-rraren aurrean inpugnatu ahal izango dituzte, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta hilabete bateko epean.

### **OPOSIZIORAKO GAI-ZERRENDA**

## Lehen Zatia: Liburutegia

01.- Liburutegien Kontzeptua eta Helburua.

02.- Euskal Herriko Liburutegien antolakuntza.

03.- Herri Liburutegiak: Beren zerbitzu ezberdinak. Liburutegi Publikoak Euskal Herrian.

04.- Liburu hautaketa eta eskuraketa. Liburu-fondoen sarrerek eta berriztapena. Eraberrikuntza.

05.- Katalogoak liburutegian. Katalogatze eta sailkatze sistemak.

06.- Bibliografiak: Kontzeptua eta egungo egoera munduan: ISBN, ISBD.

07.- Haurren Liburutegiak. Liburutegien hedadura. Sektorea-erriko orientazioa eta heziketa iraunkorra.

08.- Haur eta gazteen liburua. Euskarazko liburua.

09.- Liburuaren historia inprimaketa asmatu zen arte.

## Bigarren Zatia: Artxibategia

10.- Sailkapen Sistemak: Aipamena. Definizioa.

11.- Sailkapen Sistemak: Bakoitzak dituen abantaila eta desabantailak.

12.- Artxibaketaren antolamendua.

13.- Artxibaketa-Mailak.



Hirugarren Zatia: KULTURA, GIZARTEA.

14.- Kultura, Gizartea eta sustapena.

15.- Gizarte-kultur eragilearen kontzeptzio ezberdinak.

16.- Eragilearen zeregina Udalean.

17.- Interbentzio Sozio-kulturalerako esparruak adinen arabera: Haurrak, nerabeak, gazteak, helduak eta zaharrak.

18.- Euskal Literatura: Idazle Nagusiak.

Liburutegiko Laguntzailearen Oinarriak, aho batez onartuak izan dira.

### 3.- EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN SAILARI, LIZARTZAKO HERRIAN BOTIKINA JARTZEKO BAIMEN ESKAERAREN ONARPENA

Gaur egun Lizartzako herriak badu farmazi bulego bat, bere titularra Esther Ederra Irurzun delarik. Farmazeutika honek, bere bulegoa lekuaz aldatzeko baimena lortu du.

Lizartzako herri honek, gaur egun, 800 biztanle baino gutxiago ditu; Euskal Herriko Farmazeutika Araudiaren, Ekainaren 17ko 11/1994 Legeak ezartzen duenaren arabera, ezinezkoa da, 800 biztanle baino gutxiagoko herritan, farmazi bulegorik baimendu, Botikinak ihardunean jartzeko baimen, baldintza eta ihardunbiderako erregimena ezartzen duen, Azaroaren 28ko 500/1995 Dekretuan eta aipatutako legearen 25. artikulua arautzen dutenaren arabera, farmazi atentzioa, botikinen bidez bideratzea dagoelarik.

Berastegiko Farmazeutikoa den Alfonso Vilar Sanchez, prest dagoela, botikinaren kontzesiora aurkezteko, eguneko irekiera eskeiniz.

Horren aurrean eta 500/1995 Dekretuaren 6. eta 7. artikulua diotenaren arabera, proposatu da:

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailako Departamentuari, Lizartzako herrian Botikina jartzeko baimenaren prozedura hasteko eskatzea.

Proposamena, aho batez onartu da.

Momentu honetan, Ramon Bengoetxea Altuna, Manuel Barriola Tolosa eta Jose Arzadun Egiluz zinegotziak sartu dira Areto Nagusira.

#### 4.- AURREKONTUAREN KREDITU ALDAKETAK

#### KREDITU-GAIKUNTZEN ERREGIMENAREN BIDEZ EGIN BEHARREKO KREDITU-ALDAKETARAKO 1 ZK. ESPEDIENTEA ONESTEKO PROPOSAMENA

Lizartzako Udal honen 1.996eko Aurrekontuaren barnean Kreditu-Gaikuntzen erregimenaren bidez izapidetzen den Kreditu-Aldaketarako espedientearen berri eman ondoren.

Idazkari-Kontuhartzaileak jaulkitako txostena irakurri ondoren, zeinak adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarria zaion indarreko araudiari egokitzen zaiola eta, hortaz, bere aldeko txostena ematen baitu.

Onespena proposamena formulatzen duen Ogasun Batzordeak emandako aldeko irizpena irakurririk.

ERABAKI DA:

- 1.- Kreditu-Gaikuntzen erregimenaren bidez egin beharreko Kreditu-Aldaketarako espedientea onestea, 2.651.457,- pezetako zenbatekoaz,

espedientearekin batera jasotako egoera-orriskan ageri den kontzeptu eta partiden xehekapen berarekin.

2.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da onetsitako Kreditu-Aldaketa Fondon Kontuhartzailletza Zerbitzuek Kontabilitatean berehalako ondorioekin isla dezaten.

## **KREDITU GEHIGARRIEN BIDEZ EGIN BEHARREKO KREDITU-ALDAKETARAKO 2 ZK. ESPEDIENTEA ONESTEKO PROPOSAMENA**

Udal honetako Aurrekontua afektatzen duen Kreditu Gehigarrien bidez egin beharreko Kreditu-Aldaketarako Espedientea irakurri ondoren.

Idazkari-Kontuhartzaileak jaulkitako txostena irakurri da, zeinak adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaiola, zehazki Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko otsailaren 26ko 4/1991 Foru Arauaren 34. artikuluan eta Toki Entitateen Aurrekontu-Erregelamendua onesten duen abenduaren 1eko 96/1992 Foru Dekretuaren 40. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei egokitzen zaiela.

Era berean, Ogasuneko Informazio Batzordeak formulatutako aldeko txostena eta onespren proposamena irakurri dira.

Dagokion eztabaidaren ondoren botutara jarri da eta berataratuen aho batez, honako hau

### **ERABAKI DA**

1.- Udal honetako aribideko ekitaldiko Aurrekontua afektatzen duen Kreditu Gehigarrien bidez egin beharreko kreditu-Aldaketarako espedientea onestea, formulatutako proposamenaren eta ondoko Kapitulukako laburpenaren arabera:

## KREDITU-GEHIKUNTZAK

<u>Kapitulua</u>	<u>Izendapena</u>	<u>Igoerak</u>
------------------	-------------------	----------------

226.03 Publizitatea .....	187.165,-
---------------------------	-----------

IGOERAK GUZTIRA .....	187.165,-
-----------------------	-----------

=====

## FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

1.995 urteko Altxortegi Gerakin Likidoa.

2.- Jendurreko informaziorako tramitean jar bedi, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behinbetikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

5.- DESJABETZA EPAITEGIRA, 3. AREAKO ESPEDIENTEA BIDALTZEA ETA UDALAREN TEKNIKARIA IZENDATZEA

IKUSIRIK, 3. Areako desjabetza espedienteak afektatutako lurrei buruz, Administrazioaren Balioespe-Oriak atzera boteaz, JOSE M. AGIRREBARRENA Jaunaren Oinordekoen izenean, JULIA RUIZ DE LA CUESTA GOMEZ, JULIAN GENARO OLAETXEA ODRIUZOLA, GASPAR BARRIOLA IRAZUSTA eta JAVIER URKIZAR LARRARTE Jaun/Andreak, aurkeztutako idatziak.

KONTUTAN HARTUAZ, Nahitaezko Desjabetza Legearen 31 artikulua dioena.

PROPOSATU DA:

Lehena.- JOSE M. AGIRREBARRENA Jaunaren oinordekoen izenean, JULIAN RUIZ DE LA CUESTA GOMEZ, JULIAN GENARO OLAETXEA ODRIOZOLA, GASPAR BARRIOLA IRAZUSTA eta JAVIER URKIZAR LARRARTE Jaun/Andreek, 3. Areako lurrei buruzko Balio Justuaren espedienteak, Gipuzkoako Nahitaezko Desjabetzapen Lurraldeko Epaitegira bidaltzea.

Bigarrena.- Gipuzkoako Nahitaezko Desjabetzaren Lurraldeko Epaitegiaren aurrean, Lizartzako Udalaren ordezkapenerako, Goi Mailako Teknikari bezala, FELIPE GOMEZ ARRIARAN Abokatua izendatzea.

Proposamena, Herri Batasunako 4 zinegotzien aldeko eta Lizartzako Herriaren Aldeko 3 zinegotzien aurkako hiru botoekin, onartutzat eman da.

#### 6.- 1996-05-01era UDAL BIZTANLEEN ERROLDAKO BEHIN BETIKO DATUEN ONARPENA

Idazkariak, 1.996ko Maiatzaren 1era eginiko Errolda Berrikuntzaren behin-betiko datuen berri ematen du:

GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK	GUZTIRA
341	303	644

1.996-05-01era eginiko Errolda Berrikuntzaren behin-betiko datuak, aho batez onartu dira.

#### 7.- NATOrri BURUZKO MOZIOA

Hego Euskal Herriak 1986ko martxoaren 12an NATOn sartzearen aurkako borondate garbia agertu zuen, egun hartan egin zen erreferendumean ezarritako galderari ezetz borobila emanaz.

Halere, Espainiar Gobernuak ez du inoiz ere borondate hori errespetatu eta gure lurraldea NATOn sarturik dago euskal hiritarren nahiaren aurka.

Gaur egun, Espainiar Estatua NATOren egitura militarrean erabat sartzea erabaki nahi du Madrilgo Gobernuak eta ez du gure gizarteak adierazitako borondatea errespetatzeko inolako asmorik.

Gauzak horrela, Udal honek, gure herriak zehazki adierazitako borondatea kontutan harturik, zera exigitzen die Espainiar Gobernuari eta NATO erakundeari:

**HERRITARREN BORONDATEA ERRESPETATUZ, HEGO EUSKAL HERRIKO LURRALDEA NATOTIK KANPO JOTZEA MAILA GUZTIETAN.**

Aipatu erabakia NATOren zein Espainiar Gobernuaren egoitza ofizialetara helaraziko da.

NATOrri buruzko mozioa, aho batez onartua izan da.

## **8.- ETXEGARATEKO DESDOBLAMENDUARI BURUZKO MOZIOA**

Gipuzkoako biztanleek orokorrean, eta batipat Tolosaldea eta Goierriko herritarrek, Etxegarateko portuaren desdoblamentuaren inguruan izan duten ardura da, mozio hau aurkeztearen arrazoia.

Eskualde eta herri hauen garapen sozial, politiko eta ekonomikorako lehentasunekoa da Etxegarateren desdo-blamendua lehen bait lehen ematea.

Urte asko eta asko dira, Gipuzkoa Nafarroarekin lotzen duen errepide honen desdoblamentuari ekin behar zaiola errepikatzen ari garela. Denbora guzti honetan, hainbat plangintza eta ekimen izan dira obra honen premia aldarrikatu dutenak (87ko EKako Errepide Plana adibidez) eta behin eta berriz,

interes politiko garbiengatik, eta beste errepide batzuei lehentasuna eman nahi izan zaiolako, luzatzen joan izan da.

Azken egun hauetan, eta berriz ere lehengoan ildotik doazen interes politiko berberengatik, Etxegaraten peajea jartzearen beharra ari dira aldarrikatzen Gipuzkoako Foru Aldunditik, eta zehatzago izateko, Jose Julian Irizar-ek zuzentzen duen Garraio Departamendutik.

Peajea jartzeak gure lurraldearen egituraketa eta garapenarentzat suposatuko lukeen kalte eta atzerapausuaz erabat kezkatuak, LIZARTZAko Herri Batasuneko kideok Osoko Udal Batzarrari honako erabaki hauek hartu ditzan eskatzen diogu:

- 1.- Gure eskualde eta herriaren garapenerako Etxegarateko desdoblamentuak daukan garrantzia ikusirik, lehen bait lehen berau burutu dadin exijitzea.
- 2.- Gure eskualde eta herriarentzat oso kaltegarria izanik, Etxegaraten peajea jartzearen proposamena atzera botatzea.
- 3.- Erabaki honen berri, herritarrei, Gipuzkoako Garraio Diputatuari eta Diputatu Nagusiari ematea.

Etxegarateko desdoblamentuari buruzko mozioa, aho batez onartua izan da.

## 9.- SENIDEAK-en MOZIOA

Euskal Herriko gizartean azken aldian eguneroko-tasunean present dagoen gairik baldin badago, hori Euskal Preso Politikoei dagozkien eskubideena da. Gizartean gai honen inguruan dagoen sentsibilizazioa geroz eta handiagoa den arren, errealitate batekin egiten dugu topo oraindik ere: Euskal Presoek estatu frantziar eta espainiarreko kartzeletan sakabanaturik jarraitzen dutela, legeak berak ere onartzen dituen oinarrizko giza eskubideak

falta zaizkielarik. Horien artean garrantzitsuenetarikoa, Euskal Herrian egoteko daukaten eskubidea.

Hau guztia horrela izanik, denok daukagu zer egina eta zer esana gai honen inguruan, eta nabarmenak dira, bai alderdi politiko, sindikatu eta beste hainbat gizarte ekimenek emaniko pausuak, Euskal presoek eskubide hauek bete dakizkien.

Eskubide hauen aldarrikapenean beste urrats bat emango da datorren azaroaren 30 larunbatean, Senideak elkarteak konbokatu eta hainbat sindikatu eta gizarte mugimenduk babesa emanik Bilbon izango den manifestaldian.

PROPOSATZEN DA:

Aldarrikapen honen bitartez, LIZARTZAKo Udalak, bat egitea manifestaldiaren edukinarekin eta berau bultzatzeaz gain herritarrei bertara joan daitezenaren gonbitea luzatzea.

Espaniar eta frantziar gobernuei presoek eskubideak bermatzeko eskatuz, datorren azaroaren 30-ean, Bilbon egingo den manifestapenaren alde eta herritarrei bertara joan daitezenaren gonbitea luzatzea.

SENIDEAK-en mozioa, aho batez onartua izan da.

#### 10.- ALKATETZAREN DEKRETUAK

Ima Zubeldia Luloagari, Sagastiberr Baserriko Fatxadaren konponketarako baimena.

Inaxio Altuna Auzarmendiri, Kale Nagusia, 14ko etxearen fatxadako balkoiak ordezkatzeko baimena.



Sagrario Urdanpilleta Gogorzari, Kale Nagusia, 18ko 2. pisuko etxearen leihoak aldatzeko baimena.

Begoña Balerdi Urdanpilletari, Kale Nagusia, 18ko Etxearen atzekaldeko terraza eta fatxada reforzatzeko baimena.

Rafael Karrerari, Mekola Etxean leihoak aldatzeko baimena.

Martin Mendiari, Lardi Berri etxearen fatxada pintatzeko baimena.

#### 11.- GOLTZUR ZELAIKO PLANAREN LEHEN ONARPENA

Goltzur Zelaiko Planarekin afektatua denez, Alkateak, Bilkura Aretotik ateratzeko eskatzen dio, Manuel Barriola Tolosa Zinegotziari.

Honek, irten aurretik, Planarekin bere ezadostasuna adierazten du.

Jarraiean, Ima Zubeldia Luloaga, Nekazaritza Batzordeko Zinegotziak, Goltzur Zelaiko Planaren gain egin diren gestio eta afektatuekin edukitako bileren berri ematen du.

Guzti horren arabera, gaia sakonki eztabaidatu ondoren Goltzur Zelaiko Planari, Herri Batasunako 4 zinegotzien baiezkoa eta Lizartzako Herriaren Aldeko 2 zinegotzien aurkako botoekin, Lehen Onarpena ematea erabaki da.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, gaueko hamaikak direnean.